

JULY 1964



Who do you think you are?, 2014 (zatia/ detalle)

que la artista, tras elaborar un listado de las apariciones de Alfred Hitchcock en sus películas, convierte los cameos del cineasta en texto, un texto que la artista dibuja sobre papel en dos idiomas, inglés y español, y en dos colores, rojo y negro. La frase del título describe la aparición de Hitchcock en la película *The Lodger: A Story of the London Fog* (1927), una historia sobre un asesino en serie de mujeres inspirada en Jack el destripador, y que en español se tradujo, nada más y nada menos, como *El enemigo de las rubias*. Un título profético si tenemos

en cuenta la carrera cinematográfica y vital del cineasta a la luz del célebre texto de Laura Mulvey *Visual Pleasure and Narrative Cinema* (1975), donde se analiza la misoginia sádica de sus filmes. Siguiendo el método de Intxausti, un fragmento de film pasa a convertirse en un texto que forma parte de un listado, a ser un dibujo, después, para devenir por último el título de la exposición, donde llega a connotar el nombre de la artista, e incluso, quizá, tanto a definir su práctica artística, como a aludir al voyerismo del cineasta.

artium.eus
Frantzia kalea/Calle Francia 24
01002 Vitoria-Gasteiz

Artium araba
álava
Arto Gasteizko
Eusko Zentroa
Centro Museo Vasco
de Arte Contemporáneo


EU | ES

jendetzaren erdian, atxiloketari begira entre la multitud, observando el arresto

2020.OTS.8 - IRA.20
8.FEB - 20.SEP.2020

GEMA INTXAUSTI

Gema Intxaustiren (Gernika, 1966) formatu handiko bakarkako lehen erakusketa Ibilbide Artistikoaren Gure Artea Saria jaso eta urte eta erdi geroago inauguratu da. 1990eko hamarkadaren hasieratik, hau izan da Intxaustiren ezaugarria —gogoratu digu Lourdes Méndez antropologo feministak saria ematean—: «Zerbait esateko, kontatzeko, sentiarazteko eta susmarazteko beharra duenean egitea erakusketa. Lan artistiko motela, lasaia garatzeko aukerak markatzen du haren ibilbidea, zenbatzeko modukoa izateak kalitatea ezkututzen duen denboran hain arriskutsua». Errealitate konplexuak sinplifikatzeko obsesio garaikidearen aurkakoa den erritmo motela, kontzeptuzko eta/edo gizarteko faktore erabakigarriak ezabatzeak dakartzan ondorio politiko penagarriez jabeturik. Gema Intxausti artea «ikusteko» darabilen artista da, María Zambranok *Algunos lugares de la pintura* liburuan jasotako tradizioan: «arte gisa ikusten den artea ez da ikusarazten duen artea». Intxausti artistaren irudia arte-langiletzat hartzen duten artisten sagakoa da, eta artea harago ikusten ikasteko diziplinatzat hartzen duena, ezagutza sortzeko metodotzat. «Haritik tiraka» eta «saltsa mehe egitea» Intxaustiren hiztegiko ohiko adierazpideak dira. Azken 30 urteotan, lan artistikoaren metodo bat garatu du, zantzu txikiak, pista solteak eta diskurtso monolitikoen pitzadurak aztertuz. Hainbat elementu (objektuak, irudiak, pertsonaiak, istorioak, etab.) aipatzeko gai den metodoa, elkarreraginean, zeinuaren/adierazlearen postulatuak gainditzeko eta esanahi berriak sortzeko behar den tentsioa sortzen dutenak. Horretarako, artistak, askotan, elementuen zerrendak egiten ditu, eta zerrenda horiek esanahi berri bat emateko taulan jartzen ditu



gero jokoan. «Konturatu nintzen zerrenda hartako zati batzuk hautatuz narrazio bat eraikitzen nuela, egunerokotasunaz, itxuraz haratago, fede ematen zuena» zioen artistak duela gutxiko elkarrizketa-testu batean. Etxeko materialekin —zapiak, zelo-papera...— egindako lehen eskultura-lanetatik oin-puntetan bezala igarotzen da erakusketa honek azken 20 urteetan egindako piezak ditu ardatz, marrazkian, argazkigintzan eta testuan oinarrituta. Zinemaren eragin handia dute piezek. UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean eskultore gisa trebatua, Gema Intxausti «zinemaren azken belaunaldikoa» da, 80ko hamarkadakoa, «zazpigarren artea» zinekluben, zineforumen, telebistan espezializatutako programazioen eta aldizkari eta liburu ugariren bidez asko zabaltzen zen testuinguru batekoa. Hainbat hamarkadatan autore-zinema, zinema esperimental,

klasikoa eta haien teorizazioak ezagutu ondoren, lan eta jakintza horiek unibertitate-geletan ere eskura ditzakeen belaunaldikoa. Gainera, belaunaldi horrek harreman estua ezartzen du zinemaren eta arte garaikidearen artean. Diskurtso-ekoizpena egituratzeko tresna baten bila, Gema Intxaustik zinema-gidoi ikasketak egin zituen azkenean, urte batzuk geroago, Londresen bizi zenean, museo eta arte-erakundeetako aretoetako zaintzaile-lanetan ari zen bitartean. Urte horietan, bere hitzetan, egunak «beste batzuek nola begiratzen duten begira» pasatuko ditu.

Erakusketa honen izena, *Jendetzaren erdian, atxiloketari begira*, erakusketan ikusgai dagoen artelanetako bat, *Unframed Jane* (2015-2019), osatzen duten marrazki sailetik dator. Bertan, Alfred Hitchcock-ek bere filmetan egindako agerpenen zerrenda egin ondoren, testu bihurtzen ditu zinemagilearen saioak, eta

Unframed Jane, 2015 (zattia/ detalle)

testu hori paperean bi hizkuntzatan marrazten du, ingelesez eta gaztelaniaz, eta bi koloretan, gorri eta beltzez. Izenburuaren esaldiak Hitchcock-en agerpena deskribatzen du *The Lodger: A Story of the London Fog* (1927) filmean. Emakumeak hiltzen dituen serieko hiltzaile bati buruzko istorio hori, Jack *errai-ateratzailean* oinarritua, *El enemigo de las rubias* gisa itzuli zen gaztelaniaz. Izenburu profetikoa, zinemagilearen karrera zinematografikoa eta bizitza kontuan hartzen baditugu, Laura Mulvey-ren *Visual Pleasure and Narrative Cinema* (1975) testu ezagunaren argitan, non haren filmen misoginia sadikoa aztertzen baita. Intxaustiren metodoari jarraituz, filmaren zati bat zerrenda bateko testu bihurtzen da, marrazki bat, eta, ondoren, erakusketaren izenburua. Han, artistaren izena aditzera ematera iristen da, eta, agian, arte-jarduera definitzera eta zinemagilearen voyeurismoa aipatzera.

La primera exposición individual de gran formato de Gema Intxausti (Gernika, 1966) se inaugura un año y medio después de recibir el premio Gure Artea a la trayectoria artística. Desde principios de los años 90, Intxausti se ha caracterizado —nos recordaba la antropóloga feminista Lourdes Méndez en la entrega del galardón— por: «exponer cuando tiene algo que decir, que contar, que hacernos sentir e intuir. Su opción por desarrollar un trabajo artístico lento, pausado, tan arriesgada en un tiempo en el que lo cuantificable oculta lo cualitativo, marca su trayectoria». Un ritmo lento que se opone a la obsesión contemporánea por simplificar las realidades complejas, consciente de las desastrosas consecuencias políticas que a menudo conlleva eliminar factores conceptuales y/o sociales determinantes. Gema Intxausti es una artista que practica el arte para ver, en la tradición que recoge María Zambrano en *Algunos lugares de la pintura*: «el arte que se ve como arte no es el arte que hace ver». Intxausti pertenece a la saga de artistas que conciben la figura de la artista como una trabajadora del arte, que entiende el arte como una disciplina para aprender a ver más allá, como un método de producción de conocimiento. «Tirar del hilo» e «hilando fino» son expresiones habituales en el vocabulario de Intxausti, que en los últimos 30 años ha desarrollado un método de trabajo artístico deteniéndose en los pequeños indicios, las pistas sueltas, en las fisuras de los discursos monolíticos. Un método capaz de invocar una serie de elementos: objetos, imágenes, personajes, historias, etc. que, al interactuar entre sí, producen la tensión suficiente para trascender los postulados establecidos del signo/significante y generar nuevos significados. Para ello, la artista recurre frecuentemente a la elaboración de

listas que extractan los elementos que pondrá en juego en el tablero de la resignificación. «Me di cuenta de que seleccionando partes de aquella lista construía una narración que daba fe de lo cotidiano más allá de la superficie, de la apariencia» afirmaba la artista en una reciente conversación-texto.

Esta exposición, que pasa de puntillas por sus primeros trabajos escultóricos elaborados con materiales domésticos como las bayetas o el celo, se centra en las piezas producidas en los últimos 20 años basadas en el dibujo, la fotografía y el texto. Piezas que están profundamente influenciadas por el cine. Formada como escultora en la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, Gema Intxausti pertenece a «la última generación del cine», que en los años 80 disfrutaba de un contexto en el que «el séptimo arte» se difundía profusamente a través de cineclubs, cineforums, programaciones especializadas en TV e infinidad de revistas y libros. Una generación que, tras décadas de cine de autor, experimental, clásico y de sus respectivas teorizaciones, puede acceder a esas obras y saberes incluso en las aulas universitarias. Además, esa generación establece una relación estrecha entre el cine y el arte contemporáneo. Buscando una herramienta para estructurar su producción discursiva, Gema Intxausti terminará estudiando guion cinematográfico, cuando años más tarde vive en Londres, a la vez que trabaja como vigilante de salas de museos e instituciones artísticas. Unos años en los que, según sus propias palabras, pasará los días «mirando cómo miran otros».

El título de esta exposición *Entre la multitud, observando el arresto*. Gema Intxausti proviene de la serie de dibujos que componen *Unframed Jane* (2015-2019), una de las obras que se muestran en la exposición, en la